

Euskal Herrian bakarrik existitu, Europa osoan baizik. Kontinente osoko herrialdeak ziren lehen matrilinealak. Indoeuroparren iristearrekin ahultzen hasi zen, ordea, kultura horren dekadentzia. Talde militarretan iritsi ziren indoeuroparrak, zeharo hierarkizatuak eta agintean soilik gizonezkoak zituzte-larik.

Horrelako hiru uholde gogor etorri ziren Europara eta azkenean kontinente osoa gelditu zen kolonizatua. Gu, ordea, nahiko babesturik egon ginen Euskal Herriko orografiari esker.

Erromatarrak etorri ziren ondoren, euren hierarkia piramidalarekin, eta beste kolonizazio prozesu gogor bat jasan genuen.



«**Taldearekiko pertenezia amarengan oinarritzen zen**»

«**Etxeko umeak zaindu eta, aitaren funtzioa egiten zuena osaba zen**»

«**XVI. mendean haustura oso inportantea jasan zuen gure kulturak**»

**Orduan hasi zen egungo eredu patriarkalera eramán gaituen ibilbidea?**

Esan bezala, Euskal Herrian babestua geratu ginen gure mendi eta orografiarengatik. Horrek gure eredu kulturala mendeetan zehar mantentzen lagundu zigun.

Erromatarren ondarea inguruko lurraldeetan oso errotuta geratu zen, ordea. Gaztelako Erresuma sortu zenean, beste kolonizazio prozesu batekin hasi ziren, gurean. XVI. mendean haustura oso garrantzitsua jasan zuen gure kulturak. Batez ere, eliza katolikoa botere guztiarekin sartu zelako gizartearen, kultura matrilineala ezabatu eta kultura patriarkalarengatik aldatzeko asmoz.

Orduan hasi zen gure kolonizazio prozesu gogorra. Egungo gizartearen oraindik jarraitzen duena.

**Euskaldun askok ez dute gure arbasoen kulturaren berri izan. Zergatik?**

Botereari komeni ez zaiolako.

Euskaldunok gure historia eta kulturaz benetan jabetuko bagina, hori mehatxu bat izango litzateke gaur egun oraindik bizi dugun kolonizazio prozesuarentzat.

Prozesu hori bukatzeko gutxi gelditzen zaiela ikusten dute kolonizatzaileek. Kasu honetan, gu denak espainolak bilakatzeko prozesua, alegia.

Euskaldunok nor garen eta nondik gatozen gogoratuko bagenu, gure nortasuna sendotuko litzateke, eta hori mehatxu gisara ikusiko lukete boteredunek.

**Gizarte matriarkalaren zenbait arrasto bizirik jarraitzen dutela aipatu duzu, ordea.**

Bai. Hirietan zaila da arrasto horiek ikustea, baina ikusgarriak dira oraindik herri txikietan. Herri txiki askotan etxea alabarentzat izaten da, adibidez. Elizak maiorazkoa inposatu bazuen ere, hori oraindik mantentzen da.

Gure hizkuntzan antzinako zenbait errituren arrastoak topa ditzakegu ere. Atsolorra, euskal jaiotza erritua, berreskuratu egin dugu, adibidez. Usurbil, Ereñotzu eta Hernani aldean hitz hori bizirik dago oraindik.

Etxean emakume bat haurdun geratzen zenean, esperientzia handiko inguruko emakume jakintsuak laguntza ematera joaten ziren, eta erditzeko egunean ere han egoten ziren. Hortik datorkio izena jaiotza errituari: *Atso*, emakume jakintsu, eta *lorra*, konpromisoa.

Jaiotzaren ondoren, ama sendotzen zenean, herri guztia joaten zen umearen jaiotza ospatzera, eta hor herriak umea babesteko konpromisoa hartzen zuen. Umea ez zelako amarena bakarrik, komunitate osoarena baizik.

**Arrasto horietako asko hizkuntzan geratu dira islaturik, hortaz.**

Hala da, bai. Hizkuntza pentsamoldeari lotuta dago. *Gure* hitzaren erabilera oso aipagarria da. Hitz hori oso erabilia izan da beti euskal gizartearen: *gure etxea, gure ama, gure umea...* esaten dugu. Horrek etxeko pertenezia agertzen du. Denok gara etxekoak eta etxekoenak.

Gure egin beharrak eta gure lurraldearen bitartez lantzen genituen. Bizitza oso komunalaren orduan, eta hortik datozkigu, *batzarra* eta *auzolana* hitzak, besteak beste.

Belaunaldi berrietan, ordea,

hitz egiteko modu hori galtzen joan da denborarekin. Orain, *nire etxea, nire umea, nire ama...* entzuten dira asko ere gehiago. Pribatizatuta dago

dena gaur egun. Indibidualizatu.

**Zertan zabilta momentu honetan?**

Ikertzen jarraitzen dut, hau ha-

siera besterik ez delako izan. Zenbat denbora eramango didan ez dakidan arren, nire asmoa liburu honi jarraipena ematea da.

**Publierreportajea**

## Autogestioan oinarrituta, Sutearon bazkideek babesten dituzte euren etxebizitzak

**Sutearo**

Landa eremuetako etxebizitzak babestea. Horretan datza Sutearen lanaren garrantzia. Duela 26 urte Bizkaiko Lea-Artibai eskualdeko herritarrek hasitako lanari heldu, eta Euskal Herriko hainbat txokotara zabaldu dira sutearoak. Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, guztira, 39 sutearo edo ermandade dira gaur egun.

Elkarte bezala funtzionatzen dute, kooperatiba baten filosofia da Sutearena. Hala, bazkide denen artean babesten dituzte etxebizitzak. Autogestioan oinarritzen dira horretarako, eta denen artean babesten dituzte etxebizitzak, denen parte hartzearekin. Hori, eta irabazi asmorik ez izatea da aseguru etxeengandik bereizten diena.

Zornotzan dute bulegoa, eta hango langileek bazkideen beharrak kudeatzen dituzte. Hori da euren lana, sutearoetan, modu autonomoan, hartzen dituzten erabakiak kudeatzea. «Normalean, denek ditugu arau berdinak baina bazkideek erabakitzen dute arau horiek zeintzuk diren. Sutearok ermandadeen aginduak betetzen ditu, aurrera eramán», diote.

Beraz, lehenago ere bazegoen erreallitate bati forma juridikoa

emateko sortu zen Sutearoko Federazioa, etorkizuna bermatzeko. Bazkideak jartzen duen diruarekin guztion artean, era solidarioan, ordaintzen dituzte kalteak. «Bazkideak jartzen duen dirua konponketak, sinies-



troak eta abarrak ordaintzeko erabiltzen da. Eta baja ematerakoan bazkide horrek Suteareoren poltsan dirurik balu, bueltan hartuko luke. Bazkide denek aportatzen dute Sutearen proptzio berdina, bakoitzak bere etxearen balioaren arabera».

**Tokian tokiko erabakiak**

Baserrien jabeak dira, batez ere, Sutearora jotzen dutenak, aseguru etxeentzat ez baitira erakargarriak. Eraikuntza handiak dira, eta etxebizitzek baino arrisku gehiago dituzte. Horregatik, baserrien jabeek aseguru etxee-

tan ordaindu behar duten kuota oso garestia izaten da. Sutearok, aldiz, ez ditu baserriak baztertzeko, bere baitan hartzen ditu; «gure ardura delako baserri inguruko etxebizitzak babestea».

Horregatik, Sutearora hurbiltzen direnei beren filosofiarekin bat egitea eskatzen diete, ez prezioagatik. «Autogestioan, lankidetzan lan egiten dugu, eta batzarretara joateko eskatzen dugu, erabakiak denen artean hartzen ditugulako. Elkarrekin transbersala da, eta gure proiektua denen artean egindakoa da», azpimarratu dute.

Ermandade bakoitzean batzar bat egiten dute urtean, inguruko bazkide denak biltzen dituen. Urteko balantzea egin, kontuak aurkeztea eta eztabaidatu beharrekoak lantzen dituzte, sutearo bakoitzean tokiko gai ordenari jarraituz. Horrez gain, ermandadearen batzordea aldatzeko baliatzen dute batzarra, eta hurrengo urtean ermandadeko ordezkari zeintzuk izango diren jakitera emateko.

Autonomoak direlako du sutearo bakoitzak tokian tokiko batzordea. Hurbila delako. Eta bazkideek duten beste abantaila bat da norberak erabakitzen duela etxean egin beharreko konponketa nork egingo duen. «Sutearok peritoxo bidaltzen du, baina gremioa bazkideak berak biltzen du, ingurukoaren artean sinergiak lortzeko, eta, kilometro cetero deritzan horretan oinarrituta, tokiko jendeari ere lana emateko».

SUTEARO, LANDA EREMUETAN KOKATUTA DAUDEN ETXEBIZITZAK BABESTERA ZUZENDUA

ELKARRI LAGUNTZEKO ERAKUNDEA

Auzolana - Elkarlana

Jauregiar, 10 - Ibaeta • 48340 Amorebieta - Etxano • tel: 94 630 00 62 - 660 39 67 00 • sutearo@sutecan.es • www.sutearo.es